

## PLAZERRA MARGOTUZ

Atzo ezpainetako bat lapurtu nuen kale nagusiko denda batean. Ezpainetako gorri bat, ez dakit ze tonutakoa, gai horietan ezjakina naiz zeharo. Urteak ziren ez nuela nire erraiez eraginda jokutzen, zalantza, beldur eta hipotesi guztiak gorderik. Beharbada, umetan goxoki dendatan burutu nituen delitu anitzetatik. Gero ikasi nuen zer ziren gizarte-balioak, elkarbizitzarako arauak, eta azkenik, arau urratzeek zekarzten zigorrak. Azken hauek batzuetan forma fisikoa hartzen zuten, bestetan bekoki ilunena, eta kasu onenetan, isiltasunarena.

Urte batzuk beranduago denda hartan nengoen ni, nire barrenak konbentzitu ez zituen kontratu-soziala apurtzen. Eta disfrutatzen. Azukredun edaritan gasak bezala iztarretatik gora zerabilkidan zirrara. Odola inoiz baino beroago sentitzen nuen, eta izerdia hotz-hotza. Dendariari aurpegira barre egin nahi nion, mingaia atera, baina ez nuen holakorik egin. Kontrara, nire gorputzean biderkatzen hasia zen adrenalina kontrolatzeko asmoz, arnasa irentsi eta atetik irten nintzen. Lasai, bakean.

Gelako mahai gainean utzi nuen ezpainetakoa. Egia esateko, hura gordetzeko tokirik ez daukat. Ez zorrerik, ez kutxarik. Deus ez. Aitortu beharra daukat, gainera, ez daukadala aurpegia margotzeko bestelako aparailurik, ezpainetako hori ez bada. Ze bakardadea harena! Eta orain, lapurtutako objektua behatz artean dantzaka daukadan bitartean, zertarako lapurtu dudan ez dakit. Beharragatik ez, gero. Nahigabeen izan da, beste aukerarik ez dut izan. Latza.

Ideiak bueltaka ditut burutik. Alde batean jaiotako, ta beste aldean jotzean oihartzuna sortzen dute. Burrunba ozen bat lepo gainean. Makineria topera daukat, eta kea, kea sartu zait belarrietatik barruko oihartzuna apaldu nahian. *Botafumeiroa* dirudit. Dendan utziko dut berriz ere. Ez, ez, hori ez.

Indarrez heldu diot ezpainetakoari. Nork zigortuko nau? Nor ausartuko da? Esaidazu nor demontre etorriko den gizarte-arauak betearaztera. Inor ez. Sekulako bizitasuna darit begietatik. Txapela kendu diot lapitzari eta nire ezpainak gora eta behera laztandu ditut harekin. Azokara joango naiz, eta gero tabernara, eta batzuekin hitz egingo dut eta beste batzuei muxu emango diet, eta orain denek, den-denek, gozatu ahal izango dituzte nire ezpain gorriak.